


FORMAKUNTZA DUALA EZAGUTZEN

Formakuntza Dualaren praktikak gazteriarengan duen eragina
ezagutzeko burututako bi jardunaldien ondorio-txostena



Euskadiko
Gazteriaren
Kontseilua
Consejo de
la Juventud
de Euskadi



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
ENPLEGU ETA GAZTERE
POLITIKAREN SALA
DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Gazteria eta Kirol
Departamentua



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

#FormakuntzaDualaEzagutzen

Idazketa eta edizioa:

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK)



Diseinua eta maketazioa:

Unai Martin

Inprimatzea:

Erreka Multimedia s.coop.

Itzulpena:

Tisa

Laguntzaileak:



Aurkibidea

1	<u>Sarrera</u>	4
2	<u>Zertan datza Formakuntza Dualak?</u>	5
3	<u>Formakuntza Duala: ikasle, irakasle eta arduradunen ikuspegitik</u>	6
3.1	<u>Eredu Duala formakuntza modura</u>	
3.1.1	Zein nolakoa da enpresan garatzen den formakuntza aldia?	
3.1.2	Nola eragiten dio Formakuntza eredu Dualak gazteari?	
3.1.3	Zein nolako eragina du hezkuntza sisteman?	
3.1.4	Eta Unibertsitateen esparrua?	
3.2	<u>Eredu Duala lan mundura sartzeko alternatiba modura aztertzeke blokea</u>	
3.2.1	Formakuntza prestakuntzaren diseinua	
3.2.2	Formakuntza Dualaren Irisgarritasuna	
3.3	<u>Formakuntza Dualak etorkizuneko enpleguaren gainean eskaintzen dituen aukerak</u>	
3.3.1	Lanpostuan igoera?	
4	<u>Genero-ikuspegia Formakuntza Dualean</u>	10
5	<u>Ondorioak eta erronkak</u>	11
6	<u>Itxiera</u>	12
7	<u>Bibliografia</u>	13

1. Sarrera

Formakuntza Duala prestakuntza-aldiak heziketa-zentroan eta enpresan edo erakundeetan txandakatzean oinarritzen den hezkuntza jarduerak da. Europa mailan erreferente den formazio-eredua da eta aspaldian errotzen ari da Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE). Bai ikastetxe kopurua, zein ikasle kopurua handitzen doa. Horrela adierazten dute *Ikas-ekineko erregimeneko Lanbide Heziketa Duala* laneko azken datuek; 2012-2013 ikasturtean 28 ikastetxe eta 124 ikasle aritu ziren Formakuntza Dualan eta 2017-2018an aldiz, 97 ikastetxe eta 1913 ikasle. Aplikazio esparrua ere hedatzen ari da. Hasieran, nagusiki Lanbide Heziketan ezarri bada ere, Unibertsitate mailan aplikatzen hasi da azken urteetan.

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren (EGK) eginkizuna gazteen iritzi, proposamen, ideia eta beharrak biltzea da, ondoren EAEko erakunde publikoei helarazi eta gazteria murgiltzen duten plan edo proiektuetan eragina izateko. Formakuntza Duala pil-pilean dagoen gai garrantzitsua bihurtzen ari denez euskal gazteriarentzat, EGK-k gazteen bizitza proiektua eraikitzerakoan zelan eragiten duen aztertu nahi du. Finean, gazteek Formakuntza Dualari buruz duten iritzi eta proposamenak administrazioari helarazteko.

Beraz, gaiaren hurbilpen bat egiteko EGK-k bi jardunaldi antolatu ditu 2018an: Lehenengoa [#GasteizGazteaEraikitzen](#) jardunaldien baitan, Gasteizen; eta, bigarrena, [#FormakuntzaDualaEzagutzen](#) jardunaldia, Donostian.

Hiruburu eztabaida-dinamika eredu bat

Bi jardunaldietarako Hiruburu eztabaida-dinamika erabili da. Gai bera joratzeko hainbat profil bilduz bakoitzak bere esperientzia eta ikuspuntutik gaiaren gaineko iritzia ematean oinarritzen den eztabaida-dinamika da. Ikuspuntu aniztasun honek gai baten irudi integrala lortzeko aukera eta profilen arteko dialektika zuzena ahalbidetzen du. Honela, hauen bizipenetan oinarrituz Formakuntza Dualaren garapenaren ahulguneak eta indargunek identifikatu dira.

Honen kudeaketarako saio bakoitzean EGK-ko bi teknikari izan dira bertan, dinamikaren antolatzaile eta moderatzaile lanetan. Erabilitako espazioak talde txikietan lan egiteko leku egokiak izan dira: lehenengoa, Gasteizko Europa Jauregia; eta, bigarrena, Donostiako UPV/EHuko Ekonomia eta Enpresa fakultatean.

Ondorengo txosten honetan Hiruburu jardunaldietan jasotako edukien laburpenak aurkituko dituzu. EGKren helburua Formakuntza Duala euskal gazterian zein nolako garapena izaten ari den aztertzea da eta hori lortzeko abiapuntu gisa duzu esku artean duzun txosten hau.



2. Zertan datza Formakuntza Dualak?

Etengabekoak eta asko dira enplegu munduak jasaten dituen aldaketak eta horretara moldatu beharra dauka hezkuntza sistemak ere. Bide horretan aurkitzen da Formakuntza Dualaren eredua, ikasleen laneratze hobeagoa lortzeko ikaslearen irakaskuntza-ikaskuntza prozesua berritu batean, alegia. Honela definitzen du arlo honetan esperientzia duen [Mondragon Unibertsitateak](#): “Prestakuntza edo Formazio Duala prestakuntza-aldiak heziketa-zentroan eta enpresan edo erakundeetan txandakatzen dituen hezkuntza-jarduera da”.

Helburuak

Txandakatze dinamika honen helburuari erreparatuz, ikastetxe eta enpresa edo erakundearen artean burutzen den ikaskuntza prozesu baten bidez ikasleak hezkuntza formakuntzako -izan Lanbide Heziketa, izan Unibertsitate arlokoa- titulu bat lortzea da helburu nagusia. Beste hitz batzuekin esanda, heziketa zentroan eskuratutako gaitasunak enpresan eskuratutakoekin bat egitea da. Horrela, bi eremuetan jasotako gaitasunak elkar elikatu eta osotuko dira, ikaslearen formakuntza integral bat lortu ahal izateko. Horretarako, enpresek modu aktiboan parte hartuko beharko lukete prestakuntza txandakatua jasoko duen ikaslearen gaitasunen profilaren diseinuan.

Bestalde, kalitatezko enpleguak sustatuz, gazteei lan-merkatuan sartzeko bidea erraztea bilatzen du Formakuntza Dualak. Ekoizpen eta produktuen prozesuaren ordez, langilearen gaitasun eta kualifikazioari lehentasuna ematen die (Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketa Saila).



Zein eremutan ezarri da?

Lanbide Heziketako esparruan hartu du indarra, baina Unibertsitate arloan ere hedatzen ari da.

Nortzuk hartzen dute parte?

Ikasleak dira jarduera honen subjektu nagusiak. Ikasle hauek prozesu guztian zehar lagunduko dituzten tutoreak izango dituzte. Batetik, tutore akademikoa izango dute (irakaslea izan daiteke); bestetik, enpresako edo erakundeko tutorea. Bien artean prestakuntza-plana zehaztuko dute. Ondoren, enpresako edo erakundeko tutoreak bere gain hartzen du prestakuntza planaz arduratzeko zeregina. Aldiz, tutore akademikoa prestakuntza plana betetzen dela bermatzen du. Enpresetako egonaldi hau lan kontratu baten bidez izan daiteke, edota beka baten bidez. Prozesuan zehar, bien arteko komunikazio eta koordinazioa ezinbestekoa da. Amaitzeko, bakoitzak bere aldetik, ikaslearen ebaluazioa egingo du.

3. Formakuntza Duala: ikasleen, irakasleen eta arduradunen ikuspegitik

Donostian burutu zen Hiruburuan hiru gai nagusi landu ziren. Gai hauek hiru lan mahaietan banatu ziren eta parte-hartzaile guztiek mahai guztietatik igarotzeko aukera izan zuten. Honako hauek izan ziren lan-mahaietan jorratutako gaiak

3.1. Eredu Duala formakuntza modura

Hiruburuko lehenengo lan-mahaian enpresan garatutako jarduera ikaslearen formakuntzarako zein nolako baliagarria den aztertu zen. Puntu hau lau azpiataletan garatu zen: lehenik, formakuntza aldiaren garapena; bigarrenik, Formakuntza eredu Dualak gaztearengan duen eragina; hirugarren puntu bezala, baita hezkuntza sisteman duen eragina; amaitzeko, honen aplikazioa Unibertsitateen esparruan.

3.1.1. Zein nolakoa da enpresan garatzen den formakuntza aldia?

Parte-hartzaileen prestakuntza-aldiak enpresan garatzeak hurrengo arlo hauek lantzeko egokiak direla iritzi zioten. Alde batetik, arlo teorikoa praktikara eraman eta lan zehatz baterako behar diren gaitasunak lortzeko. Bestetik, zeharkako gaitasunak lortzeko, hots, arduratsua izateko, lanpostuak dakartzan bestelako erantzukizunak eskuratzeko, edota antolatua izateko ere baliagarria da. Amaitzeko, gainontzeko langileengatik ikasteko aukera ahalbidetzen duela ere azaldu zuten. Honela adierazi zuen ikasle batek:

"Formakuntza Duala zure etorkizuneko lan mundua nolakoa den ikusteko aukera ona da, enpresaren egunerokoan eta proiektuetan murgiltzen zara. Momentu gogorak ere bizitzen dira, baina hori ikasteko ondo dator".



Arestian esan bezala, Formakuntza Duala zeharkako gaitasunak lortzeko aukera garrantzitsua da, besteak beste, ikastetxean teorikoki ikasitakoa egoera errealeran eramateak zeharkako gaitasun batzuk garatzeko ahalbidetzen duelako. Aipatutako kontzeptuen artean harreman pertsonalak lantzea, erantzukizuna, arduratsua bihurtzea, jarrera praktikoa lantzea etab. izan ziren errepikatuenak. Gainera, azken ideia hau indartuz, zeharkako gaitasun hauek uste baino garrantzi handiagoa dutela azpimarratu zuen Formakuntza Dualako irakasle batek. Honela adierazi zuen ekitaldian:

“Formakuntza Dualetik datorren ikasleari, enpresa barnean hartu duen espezializazioa baino gehiago, lan diziplina eta ohiturak baloratzen zaizkio: langile fina izatea, helburuak betetzea, eraginkorra izatea...”

Bestalde, prestakuntza-aldia enpresan garatzerakoan kontuan hartu beharreko puntuak adierazi zituzten hainbat profilek. Lehenengoa, formatzen ari den gaztea lan-esku merke bezala erabiltzeko arriskua saihestu beharra dagoela, enpresek langileak kontratatu beharrean, urtetik urtera datorren ikasle jariora baliatzeko arriskua baitago. Honen aurrean ebaluazioa, jarraipena, kontrola eta ikastetxe eta enpresaren arteko koordinazio zuzena bermatzea aldarrikatu ziren. Kontuan hartu beharreko bigarren puntu gisa, enpresek ikaslea formatzeko duten zeregina adierazi zuten. Ikasle zein irakasleek azpimarratu zuten moduan, enpresan askotan ez dago irakaskuntza borondaterik. Beraz, Formakuntza Dualaren jardunean aritzen direnen rolak berrikusi behar direla azaldu zuten. Argi adierazi zuen hurbildutako irakasle batek:

“ordu asko dira eta ikaslea oso erabilgarria da, baina enpresen helburua etorkizunerako langileak formatze da”.

3.1.2. Zelan eragiten dio Formakuntza eredu Dualak gazteari?

Eredu Duala Formakuntza modura aztertzerakoan, formakuntza bera zein nolakoa den aztertzearekin bat, honek gazteen bizitzan duen eragina ere mahai gainean jarri zen. Ikasleek argi adierazi zuten oso sakrifkatua eta gogorra dela eta gazteek bizitza-proiektua garatzeko zailtasunak izaten dituztela. Hona hemen ikasle batzuek esandakoa:

“Nire ordutegiak sakrifizio handia eskatzen du. Lan egiten dut 08:00-12:00 tartean eta ikasi 14:30-20:00. Bizitza sozial gutxi dut.”; “Ez dit bizitza orokorrean zentratzen uzten. Lan eta ikasi aldi berean egiteak, esfortzu handia eskatzen du.”

3.1.3. Zein nolako eragina du hezkuntza sisteman?

Bestalde, Formakuntza Dualak hezkuntza egituraren aldaketak suposatzen ditu. Honen ondorioz, irakasleriaren rol eta egituretan aldaketak, moldaketak eta egokitzapenak egin behar dira.

Ikasketa txandakatu jardura honek aurkitzen duen arazo handi bat klase teorikoak eta lanaldia bateratzeko eta antolatzeke zailtasuna da. Ikaslearen formazioa osoena izateko helburuarekin ikastetxeak eta enpresak koordinatu beharra daukate. Izan ere, ikasleak konpetentziak bi esparrutan lortu behar ditu eta maiz hauek ez dute bat egiten. Zentzu honetan, irakasle eta ikasleek erronkatzat identifikatu zuten hezkuntza planifikazioa moldatzeko beharra.

Ildo beretik, parte hartutako irakasleek komentatu bezala, sarri, hezkuntza zentroek ezin dute ikasleek enpresan ikasiko dutena bermatu. Ikaslearen ibilbidea enpresak une horretan esku artean duen proiektuaren arabera izan daitekeelako. Horregatik, ikasleak formakuntza osoa izan dezan hezkuntza sistema egokitu beharko da. Egokitzapen hau beti ere, ikaslearen egoerara moldatu beharko da, hau da, adibidez kontuan hartu beharko da ikaslearentzat lan eta ikasteak zein nolako karga ekartzen dion eta egoera konplexu horretara moldatu beharko dela hezkuntza sistema ere.



Laburbilduz, guzti honetarako, enpresa eta ikastetxearen koordinazio eta komunikazioa ezinbestekoa da eta jarraipen eta ebaluazio tresna egokiak sortu behar direla azpimarratu zuten. Honen harira, ideia oso interesgarriak plazaratu ziren honen inguruan, hona hemen irakasle batek azalduetakoa:

“Materiak diseinatzerako orduan baliabide gehiago behar ditugu, bai irakaslego zein ikasleriarentzat. Kurrikuluma sortu behar dugu. Kontzientzia orokorra behar da eta irakasleriak ere laguntza behar du. Honek ez du gutxiago eskatuko zaiela esan nahi, beste modu baten eta beste baliabide batzuekin eskatuko zaiela baizik”.

3.1.4. Eta Unibertsitateen esparrua?

Azkenik, Unibertsitate esparruan izandako hedapena aztertu zen. Izan ere, esan bezala, Formakuntza Duala Lanbide Heziketa ikastetxeetan errotzeaz gain, Unibertsitate eremuan zabaltzen ari da. Horren adierazle dira Unibertsitateetan gero eta gradu eta master gehiagok eskaintzen dutela Formakuntza Dualaren eredua. [Mondragon Unibertsitatean](#) 2017-2018 ikasturtean, graduko hamar titulu eta sei unibertsitate-master izan dira Formakuntza Dualarekin eskaini direnak, UPV/EHU ere, 2018-2019 ikasturterako Formakuntza Duala izango duten zortzi titulu iragarri dira eta Deustun ere haien eskaintza handitzen ari dira. Bide honetan zailtasun eta arazo berriekin topatu dira arduradunak.

Alde batetik, Unibertsitatean dagoen burokrasia maila altuak mota honetako programak martxan jartzea zailtzen du. [UPV/EHU](#)ko irakasle eta arduradun batek adierazi bezala, legediari dagokionez ere, Lanbide Heziketan gertatzen ez den bezala, Unibertsitate arlorako araudi propioa ez izateak kontratazio aukerak zailtzen ditu. Horregatik, ezinbestekoa da Unibertsitate esparruan formula berrien bila aritzea.



Bestalde, Unibertsitate mailan Formakuntza Duala aplikatzea oztopatzen duen beste faktore bat ikasketen aniztasuna da. Formazio Dualak funtzionatzeko ikaslearen eta kontratatzen dituzten enpresen arteko profilak bat etortzea beharrezkoa da. Unibertsitateko ikasketa gehienetan harreman hau ez da zuzena, ikasketek profil anitzeko profesionalak formatzen baitituzte. Beraz, zaila bihurtzen da enpresetan profil horiek bateratzea. Horrez gain, ikasketa askotan zailtasunak daude enpresak lortzeko.

3.2. Eredua Duala lan munduratzeko alternatiba modura

Bigarren lan-mahaian Formakuntza Duala lan munduratzeko alternatiba gisa aztertzerakoan bi ildo ezberdindu ziren: formakuntza prestakuntzaren diseinua eta Eredua Dualaren irisgarritasuna.

3.2.1. Formakuntza prestakuntzaren diseinua

Garrantzitsua da enpresan garatzen den prestakuntzaren diseinua egiterakoan ideia bat argi izatea: ikaslearen formakuntza kalitatezkoa eta osoa uzatea lehentasuna izan behar da. Horretarako, Formakuntza Dualean parte hartzen duten subjektu guztiek haien jarduna moldatu beharra dute eta hori lortzeko baliabide eta tresnak behar dira. Beste behin, kontrol eta ebaluazio mekanismoak beharrezkotzat azaldu ziren eta tresna hauek Formakuntza Dualeko erronka moduan mahai gaineratu ziren. Guzti honek enpresak aprobetxatzeko aukera ekiditeko eta ikaslearen formakuntza osoa baldintza egokietan lortzeko helburua du.



Honekin bat, prestakuntza diseinatzerakoan ikasleak formakuntzan progresioa eduki ahal izateko, ikaslearen eta enpresaren profilak bat etorri behar direla nabarmendu zen. Besteak beste, ikasleak bere zeregina ondo betetzeko eta desdoikuntzak izan ditzakeen ondorioak —ordu extrak, esaterako— saihesteko. Honela berretsi zuen bertaratutako irakasle batek:

3.2.2. Formakuntza Dualaren irisgarritasuna

Formakuntza Dualaren irisgarritasuna izan zen jorratu zen bigarren puntua. Irisgarritasun hau bi zentzutan landu zen: alde batetik, ikasleriari egiten zaion eskaintzagatik; eta, bestetik, Formakuntza Duala zein sektoretan gauzatzen den aztertuta.

Lehenengoari dagokionez, gero eta indar gehiago hartzen ari den praktika dela antzeman daiteke, baina nahiz eta gero eta ikasle gehiagok hautatu nahi duten aukera bat izan, Formakuntza Duala egiteko aukera ez da unibertsala. Ikasle zein irakasleek adierazi zuten moduan, aukera ez zaio ikasleria guztiari luzatzen, sektore zehatz batzuetan dago errota eta irakasle batek modu argian azaldu bezala, *“enpresa gutxiago ditugu ikasleak baino”*.

Bestalde, jarduera hau zein sektoretan gauzatzera iristen den aztertuz, datuek adierazten duten moduan, sektore industrialean bereziki ongi funtzionatzen duen eredu dela ikus daiteke. “Ikas-ekinezko erregimeneko Lanbide Heziketa Duala. Txostena Plan berriak 2017-2018” txostenean azaltzen den moduan, industria sektorean ikasleen %74,3a ari da eredu honetan. Baina ikasle, irakasle eta arduradunek haien zalantzak azaldu dituzte sektore honetatik kanpo Formakuntza Dualaren garapenarekiko. Halaber, funtzio publikoarekin lotuta dauden sektoreetan zailtasun handiagoak direla adierazi zuten profil ezberdinek, batetik, ez daukatelako horrenbesteko langile beharrik; eta, bestetik, sektore hauetan lan egiteko itxaron-zerrenda eta oposaketa bidez kontratatzen delako. Kontratatziorako zailtasun hauek nabariak dira, adibidez, irakaskuntza eta zerbitzuen sektoreko arloetan.

3.3. Formakuntza Dualak etorkizuneko enpleguaren gainean eskaintzen dituen aukerak

Formakuntza Duala egiten duten gazteen gehiengoak lanean jarraitzen duela entzuten da maiz. Horrela berresten dute datuek, ikasleen %80 baita kontratua lortzen duena ([Eusko Jaurlaritzaren Lanbide Heziketako web orrialde ofiziala](#)). Horrela berresten dute irakasle eta Formakuntza Dualaren esperientzia izandako ikasleak:

“Nire kasuan, klaseko zazpik egin dugu Formakuntza Duala eta gehiengoak lanean jarraitzen dugu. Enpresa berean ez bada ere, bertako esperientziak beste enpresa batean lana lortzeko lagundu digu. Praktiketara egon direnek ez dute lortu”.


Bestalde, enpresarien elkarteek behin eta berriz azpimarratu zuten ikasketak lan mundura sartzeko direla. Hori dela hauen zentzua. Formakuntza Dualak horretan laguntzen duela zioten, lan-eskua falta den alorretan ezartzen delako.

3.3.1. Lanpostuan igoera?

Amaitzeko, Formakuntza Dualak lanpostuan igoera ahalbidetzeko zein nolako aukerak eskaintzen dituen eztabaidatu zen.

Lanpostu espezializatua burutzeak lanpostu finkoetan espezializatzea suposatzen duela mahai gaineratu zen Donostian buruturiko Hiruburuan, beraz, igoera ez da aukera posible bat izaten. Baina, beti ere, enpresaren kulturaren eta tamainaren arabera izango da.

Honekin bat, gaztearentzat lehen enplegua lortzeko prozesuan erraztasun bat suposatzen badu ere, enpresa zehatz batean loturik dagoen formakuntza, enpresa zehatz horretako jakintza espezifikoak lantzerako mugatzeko arriskua dagoela ere plazaratu zen.



4. Genero-ikuspegia Formakuntza Dualean

2016an EGK-k emakume gazteek lan munduan duten egoera islatzeko landutako [Ibilbide Moreak](#) txostenean azaltzen den moduan, lan munduan ere genero desberdintasunak dira nagusi. Zentzu honetan, Formakuntza Dualaren esparruak ere, genero-ikuspegitik azterketa bat behar du.

Zergatik behar du Formakuntza Dualak genero-ikuspegia?

Formakuntza Duala gauzatzen den sektore nagusia industrial da, oso sektore maskulinizatua. Horregatik, Formakuntza Duala genero-ikuspegiarekin aztertzerakoan lehenengo eta behin sektorea bera aztertu beharra dago.

Hiruburu jardunaldietan profil ezberdinek adierazi zuten moduan, industria sektorea oso maskulinizatua dago eta honen arrazoiak nabariak dira. Sektore honetan gailendu den langile ereduak gizonezkoarena da eta, ondorioz, 'langile eredu bakar' bezala errotu da, gainontzeko ereduak baztertuz.

Hori dela-eta, Formakuntza Dualaren garapena sektore horretan kokatzen denez (industrialean), orain arte gizonezkoak izan dira formakuntza eredu honetan gehiengo handia, 'langile eredu' sektore horren neurritara egokitzen baita. Halaxe azpimarratu zuten Hiruburuko parte-hartzaileek.

Bestelakoan, egun egiten den bezala, Formakuntza Dualeko ikasleen gehiengoak gizonezkoa izaten jarraituko du eta arazoa betikotuko da. Emakumeen eta 'langile eredu' at geratzen diren bestelako kolektiboen presentzia urria da oso.

Langile eredu bakarra

Langile eredu bakarra gailentzearen ondorioz, bertaratutako ikasleek sektore industrialean lan egiten hasteko oztopoak daudela adierazi zuten. Zailtasun hauek azpimarratzerakoan ez zituzten emakume gazteek soilik dituzten zailtasunak adierazi. Izan ere, sektore industrialean gailenduko den langile ereduak baztertzaila da bere osotasunean. Modu argian adierazi zuen Hiruburuan parte hartu zuen ikasle batek: *"lan asko ez daude egokituak eta horrek 'langile eredu bakarrera' mugatzen du aukera. Emakumeei, aniztasun funtzionala duten pertsonen... ateak ixten zaizkie."*

Laburbilduz, langile profil honek berekiko ezberdinak diren profilak baztertzen ditu, hots, emakumeak, aniztasun funtzionala duen jendea etab.

Zer egin daiteke?

Beraz, garrantzitsua da emakumezkoak eta beste kolektibo diskriminizatuak sektore hauetara hurbiltzeko neurriak hartzea. Ezinbestekoa da baita ere, sektorea bera genero-berdintasuneko ezaugarrietara egokitzea.

Amaitzeko, honekin bat, Ibilbide Moreak txostenean azaltzen den moduan, langile eredu bakarrak segregazio horizontala eragiten du. Honen ondorioz, sektore batzuen feminizazioak hurrengo eraginak ditu: alde batetik, 'emakumezkoenak' jotzen diren lanpostuen balorazio ekonomiko eta sozial txarragoa izatea; eta, bestetik, maskulinizatuak dauden sektoretan emakumezkoek sarbide eta aurreratze zailtasun handiagoak izatea.

Finean, segregazio mota hau, desberdintasun ekonomikoa eragiten duen lan munduko gertakarietako bat da.



5. Ondorioak eta erronkak

Oso interesgarriak dira jardunaldietan landutako bizipenak. Hauek informazio baliagarria eskaintzen dute Formakuntza Dualaren garapenaren diagnostiko bat egiteko eta baita aurrera begirako erronkak identifikatzeko ere. Laburbilduz, hauek dira jardunaldietan jaso ziren ondorio eta erronka nagusiak.

Formakuntza Duala hainbat gaitasun lortzeko tresna egokia dela, batez ere, zeharkako gaitasunak lortzeko eta etorkizuneko enplegua lortzeko erraztasunak eskaintzen dituelako.

Halaber, badaude indartu beharreko praktika honen ahulguneak. Formakuntza Dualaren jardunak gaztearen bizitza proiektuan zelan eragiten duen mahai gainean jartzea ezinbestea da. Izan ere, bai irakasle zein ikasleek azpimarratu izan zuten moduan, ikasleari esfortzu eta sakrifizio handia eskatzen dio.

Bestalde, hezkuntza egitura prestakuntza txandakatzean oinarritzen den dinamika honetara moldatu beharra dagoela argi adierazi zuten bertaratutakoek. Hau da, hezkuntza sistema eta honi atxikiriko irakasle rolak errealitate dinamikora moldatzeko beharra dago. Horretarako, beti ere, ezinbestekoa da hezkuntza sistemaren egokitzapen hau gaztearen nahi eta beharretara moldatzea.

Amaitzeko, Formakuntza Dualaren ereduak Unibertsitate esparruan ezartzeko gaur egun dauden zailtasunak ere mahai gaineratu ziren. Ikusi bezala, gero eta hedatuago dago Unibertsitate arloan, baina zailtasunak ere nagusi dira. Izan ere, bai enpresekin egiten diren kontratu motagatik baita, lan sektoreagatik egoera bestelakoa da Unibertsitate arloan.

Zein da lortzeko bidea?

Erronkak lortzeko tresnak behar dira. Alde batetik, ikasleari ekarriko dion esfortzu eta exijentzia leuntzeko eta honi dagozkion ordutegi eta baldintzak egokitzeko tresnak sortu behar dira. Bestetik, hezkuntza egituraren moldaketarako ere tresnak eta aukerak sortu behar dira. Horretarako, parte-hartzaileek ezinbestekotzat ulertzen zuten ikastetxe eta enpresa artean komunikazioa saretua eta egoki koordinatua izatea. Hauekin bat ere, kontrol mekanismoak —jarraipen eta ebaluazio tresnak— ezinbestekoak direla ondorioztatu zen. Aipatutako azken neurriekin, hurrengo arazo hauek konpondu ahalko ziren:

- Enpresek ikasleak lan-esku merke bezala erabiltzea.
- Enpresek ikasleak behar bezala formatzeko ardura ez hartzea.
- Gaztearen kalitatezko formakuntza oinarri ez izatea.
- Ikaslearen profila eta enpresak eskaintzen duenak bat ez egitea.

Genero-ikuspegia txertatzearen beharra

Amaitzeko, oinarrizko gaia den genero-ikuspegia nabarmendu zen. Azaldu bezala, Formakuntza Duala aplikatzen den sektore nagusian, industrialean, gizonezkoen 'langile eredu' nagusitu izan da. Honek ondorio gisa emakumeen eta 'langile eredutik' at geratzen diren bestelako kolektiboen presentzia oztopatu du.

Horregatik genero-berdintasunean oinarritutako lan eremu bat lortzeko neurriak hartu behar dira. Alde batetik, beharrezkoak dira baztertuak izan diren kolektibo hauek hurbiltzeko. Bestetik, emakumezkoak eta beste kolektibo diskriminatutako sektore hauetara hurbiltzeko. Beti ere, sektorea bera genero-berdintasuneko ezaugarrietara egokitzea oinarritzkoa dela ahaztu gabe.



6. Itxiera

EGK-k Formakuntza Dualeko errealitatera hurbiltzeko urratsa eman du, esparru honetan ere gazteen eskubide, interes eta beharren alde lan egiteko. Ikasketa jarduera honen garapena aztertu eta gertatzen diren arazo eta hobekuntza proposamenak jaso nahi izan ditu hauek administrazio publikoari helarazteko asmoz.

Bide berria dago egiteko eta asko oraindik ere ezagutzeko. Ibilbide berriko jarduera den Formakuntza Duala indartsu dator eta garrantzitsua da orain garatze prozesuan dagoela eta gero eta hedapen handiagoa izaten ari den honetan, gazteen ahotsa zuzenean mahai gainean jartzea. Izan ere, gazteek zer esana dute haiei eragiten dieten politika eta neurrietan.

Horregatik, EGKtik lanean jarraituko dugu Formakuntza Dualaren ereduan ere ikasleen hitza oinarri izanik EGKren diskurtsoa eraikitzen eta botere publikoei eskaera eta nahiak helarazten.

7. Bibliografia

-Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketa Dualeko web orrialdea, azken sarbidea 2018-11-20an. Sarbidea: <https://www.fpeuskadiduala.eus/ikasleak/informazio-orokorra/>

-Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK) (2016) Ibilbide Moreak txostena. Sarbidea: <http://egk.eus/wp-content/uploads/2016/09/Ibilbide-moreak-emakume-gazteen-egoera-lan-munduan.pdf>

-Ikas-ekinezko erregimeneko Lanbide-Heziketa Duala txostena. Plan Berriak 2017-18. Egilea: Euskadi Lanbide Heziketa Dual, Eusko Jaurlaritza (publikatu gabe).